

Alexia APP eguneraketa

Azken egunetan zuen mugikorrean duzuen Alexia familia aplikazioa eguneratu egin da. Eguneraketa egitean, zenbait arazo suertatu dira eta zenbaitek ezin duzue aplikazioan sartu. Horretarako, bi aukera daude:



1. Mugikorrean "aplikazioak / aplicaciones" ataletik, Alexia Familia APPa aukeratuta, "datuak garbitu / limpiar datos" aukerari eman.
2. Edo zuzenean APPa desinstalatu eta berriro instalatu.

Hori eginda ondo sartu ahal izango zarete, baina, bertan gordeta zenituzten erabiltzaile, pasahitz eta ikastetxeko kodea ezabatu dira eta berriro sartzeko eskaera egingo dizue.

Erabiltzaile izena gogorarazteko jarri gurekin harremanetan usurbil@ikastola.eus helbidean.

Pasahitza berrezartzeko egin [klik hemen](#)

Ikastetxeko kodea ondorengoa da: **Im8i**

Jangela-erabiltzaileentzako oharra

Ikastolako jantokian erabilpen bakarreko paperezko ahozapien erabilera murrizteko eta hondakinak gutxitzeko, jantokiko erabiltzaileei **oihalezko ahozapia ikaslearen izenarekin** ekartzeko gonbita egiten da. Zapiak ostiraletan etxera eramango dituzte garbitzera eta astelehenean jangelara garbiak itzuliko dituzte. Ekimenean parte hartzera animatzen zaituztegu.



Ikasle-asegurua

Urriko erreziboarekin batera, ikaslearen istripu-asegurua kobrantza egingo da. Urteko prezioa **13,40 euro**koa izango da. Zerbitzu mediku guztiak zentro kontzertatura, hau da, Poliklinika Gipuzkoara joanez emango dira, ez da medikua ikastolara bertaratuko.



Joskintza-tailerra

Haur eta nerabeei zuzendutako 8 saioko joskintza tailerra antolatuko du Hitz-Aho guraso elkarteak.

Ikastaroaren emailea: lone Iruretagoiena moda disenaitzailea

Noiz: ostiral arratsaldeetan ordu eta erdiko saioak (ordutegia zehazteke).

Hasiera data: urriak 28

Prezioa: 20€ ikastaro osoa, materiala barne.

Non: Potxoenean

Adin gomendagarria: 8 urtetik gora

(10 laguneko taldea osatu beharko da ikastaroa aurrera atera dadin. Izena emandako ordenaren arabera onartuko dira ikasleak).

Izen-ematea ondorengo [galdetegia](#) betez egin dezakezue.



Nafarroa Oinez

Asteburu honetan, urriak 15 eta 16, **Nafarroa Oinez** ospatuko da **Tafallan**. Bertako ikastolak ekintza desberdinak antolatu ditu. Animatu zaitezte eta bertaratu festaz gozatzera!!

[Asteburuko egitaraua](#)

[Urriaren 16ko ibilbidea eta egitaraua](#)

[Nola iritsi eta aparkalekuak](#)

[Tren zerbitzu bereziak](#)



Buruntzaldeko 14. Ibilbideen eguna

Igandean, urriak 16, Buruntzaldeko 14. Ibilbideen Eguna ospatuko da. Hala, Ibilbideen Egunerako, Buruntzaldeko herriek (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) lotzen dituzten bideak daude zehaztuta, eta partaideek, bide horiek egin ditzakete oinez zein horietako batzuk bizikletaz (Andoaindik Lasarte-Oriara, Andoaindik Urnietara eta Lasarte-Oriatik Usurbil eta Aginagara). Buruntzaldeko Ibilbideen eguna, leihaketan oinarritzen ez den jarduera da, eta Buruntzaldeko eskualdeko eta bertako landa-ingurune naturalak ezagutzeko aukera ematen du.

Usurbildik abiatuta ibilbide hauek egin daitezke:

- Aginagako Mapil ingurura, 6,4 km
- Lasarte-Oriara, Santuenea eta Zubietan barrena, 2,5 km inguru.
- Urnietara, Lasarte-Oriara barrena, 7 km inguru.
- Andoainera, Andatzan barrena (Ziortzako langa), 15 km inguru.

Urriaren 16an ospatuko da eguna, 8:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Usurbilgo kontrol eta anoa puntuak, Santuenea auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean eta Aginagan, Mapil inguruan izango dira, eta puntu horietan, ibiltariei txartel bana emango zaie, abiatu diren puntua markatuta. Hala, beste herrietako kontrol edo anoa puntuetara iristean, bertako

KIROLA
GOZATU
BIZI



zigilua ere jarriko zaie txarteltxoan. Hori horrela, partaideek bi ibilbide eginez gero, oroigarri moduan eskuoihal bat jasoko dute, salbuespenak honakoak izanik: Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak. Azken horietan, soilik ibilbide batekin jaso ahal izango da oroigarria.

Autobus-zerbitzua izango da, abiatutako tokietara itzultzeko:

	AGINAGAtik	LASARTE-ORIAtik	ANDOAINdik	URNIETAtik
GELTOKIAK	Ezpaldi gasolindegia	San Inazio borobilgunea biribilgunean	Goiko plazaren atzealdean	Kiosko geltokia
	12:00	12:15	12:30	12:40
	13:00	13:15	13:30	13:40
	14:00	14:15	14:30	14:40 bukaera

Haur eta gazteen Baxurde krossa

Eskola kirolaren legea dela eta, lasterketan eskualdeko edo aldameneko eskualdeko haur eta gazteek parte hartu ahalko dute besterik ez (Donostialdea, Tolosaldea, Azpeitialdea eta Irunaldeakoak). Lasterketak **ez dira lehiakorak izango**.

ORDUTEGIAK:

12:00etan:

Irteera bateratu bat egingo da **Benjamin** (2013/2014) (8-9 urte) eta **Alebin** (2011/2012) (10-11 urte) kategoriko haur eta gazteentzat eta 600 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote, lehen erdia antolakuntzagatik bideratua izanez eta bigarren erdia beraien erritmora joaten utziko zaie, beti antolakuntzaren begiradapean.

12:10ean:

Irteera bateratu bat egingo da **Infantil** (2009/2010) (12-13 urte) eta **Kadete** (2007/2008) (14-15 urte) kategoriko gazteentzat eta 1000 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote eta beraien erritmora joaten utziko zaie hasieratik, beti antolakuntzaren begiradapean.

***Prebenjaminen** artean ere urtero bezala, 200m-ko lasterketa bat antolatuko da, denbora guztian antolakuntzagatik bideratua izanez. Adin honetakoak, egunean bertan apuntatu ahalko dira probara.

Bertan apuntatu ahal izateko lotura: <https://www.rockthesport.com/es/evento/xiiibaxurdekrossa>
[Infantil - kadete ibilbidea](#)
[Benjamin - alebin ibilbidea](#)

Ipuin kontaketa

Hurrengo astean [ipuin kontaketa](#) saio bat izango da Sutegiko liburutegian.

Noiz: urriaren 20, osteguna arratsaldeko 18:00etan

Ipuin kontalaria: LUR KORTA

Nori zuzenduta: 6 urtetik gorakoentzat



Dagoeneko izena eman daiteke Euskaraldian!

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean ospatuko da Euskaraldiaren hirugarren edizioa Usurbilen, eta herritarrek dagoeneko izena eman dezakete Ahobizi edo Belarriprest gisa. Horretarako, [klik egin hemen](#). Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa egiteko prest?

Ahobizi jokaera hautatzen baduzu, 15 egunetan zehar, euskara ulertzen duen orori egingo diozu euskaraz.

Belarriprest jokaera hautatzen baduzu, 15 egunetan zehar, euskaraz zuzentzeko eskatuko diozu hitz egiteko gai denari.

#HitzezEkitekoGaraia #Euskaraldia #Usurbil



LEHEN HEZKUNTZA

Irteeraren kobrantza

Urriko erreziboarekin batera honako irteeren kobrantza egingo da:

MAILA	NORA	IRTEERAREN DATA	ZENBATEKOA
LH 3,4,5 eta 6	Zinemaldira	Iralaren 19an	4,23€
LH 5	Allora	Urriaren 6 eta 7an	70€
LH 6	Adarrara	Urriaren 5ean	7,75€



LH 1eko ikasleen irteera

Eguraldiak lagunduko balu datorren ASTEAZKENEAN, urriaren 19an, 1. mailakook San Estebanera irteera egingo dugu



LH 3ko ikasleen irteera

Eguraldiak lagunduko balu datorren asteartean, hilak 18, 3. mailakook San Estebanera irteera egingo dugu



DBH

Chromebook erabileraren kobrantza

DBH 3ko eta DBH 4ko ikasleei urriko erreziboarekin batera "Chromebookaren erabileraren" kobrantza egingo zaiela jakinarazten da.

DBH3 20 euro

DBH4 22 euro



DBH2ko ikasleen irteera

Datorren asteko hilaren 20an, DBH2ko ikusentzunezko ikasleak Tabakalerara joango dira irteeran. Joan -etorria trenez egingo dute beraz, MUGI txartela ekartzea komeni da. Lehen orduan klasea izango dute, beraz, goizean betiko moduan ikastolara azaldu beharko dute.

